

# Gobernu- ekintzarako ELAren proposamena

2024ko uztailaren 19a



[www.ela.eus](http://www.ela.eus)

**ELA**  
EUSKAL SINDIKATUA

## 0- SARRERA

ELA Pradales Lehendakariarekin bildu zen Uztailaren 19an. Hau ez litzateke albistea izan beharko, baina Lehendakariaren aldetik jarrera aldaketa adierazten du karguan bere aurretik egon zenarekiko; hark erabaki zuen bere herriko sindikatu nagusiarekin ez zuela bilerarik egingo.

Dokumentu honetan bildu dira ELAk Lehendakariari egin dizkion proposamenak, azken urteetan sindikatuak egin dituen eskariekin bat, Eusko Jaurlaritzaren ekintzak sakoneko aldaketa izan dezan.

Zerbitzu publikoak garatu beharra dago. Osakidetzak izan duen gainbehera da horren adibide argia, baina ez bakarra. Beste arazo bat da egungo zaintza sistema. Halaber, ezinbestekoa da aurrekontua asko handitzea, egungo krisi ekologikoari irtenbide justua emateko, etxebizitza izateko eskubidea bermatzeko (gaur hau urratu egiten baita), edota prestazi sozialen sistemari esker sarrera nahikoak ez dituztenak pobreziatik ateratzeko.

Horretarako zerga-politika aldatu behar da. Eusko Jaurlaritzak ere, Zerga Koordinaziorako Organoan parte hartzen baitu, badauka ardura egungo fiskalitateari dagokionez.

Dokumentu honetan jaso ditugun proposamenak neurri konkretuak dira (kontrara, EAJren eta PSE-EEren arteko akordio programatikoa orokorkeriaz beteta dago eta oso lausoa da); honek emango du aukera neurtzeko gobernua gauzak aldatzeko zenbaterainoko borondatea duen.

## I- GOBERNU-EKINTZAREN INGURUKO PROPOSAMENAK

### 1. AURREKONTUA HANDITU

Gizarte-politikak egiteko aurrekontua behar da. Eusko Jaurlaritzak esan ohi du bere baliabide gehienak gai sozialetara bideratzen dituela, hain zuzen Osasunera eta Hezkuntzara. Hau egia da, baina baita logikoa ere, kontutan izanik bere eskuduntzak zeintzuk diren. Baina benetan jakin beharrekoa da horretara bideratzen dena nahikoa den ala ez (begibistakoa da ezetz), eta, alderaketak eginez, ahalegin ekonomikoa beste nonbait baino handiagoa ala txikiagoa den. Honi dagokionez gure inguruko herrialdeekiko defizit estruktural izugarria daukagu. Alderatzeko moduko informazioa daukagun azken urtean osasun arloko inbertsioa Europako batez besteko maila baino BPGko 2,4 puntu txikiagoa da (hau da, urtean 2.300 milioi euro gutxiago), eta hezkuntzako inbertsioa, BPGko 0,7 puntu apalagoa (urtean 636 milioi).

Egiturazko errealitate hau dela eta ELAk galdegiten du konpromisoa har dadila honakoa lortzeko:

- Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak 4 urtean osatzea Europako batez besteko inbertsio mailarekiko diferentziala; honetarako Eusko Jaurlaritzaren

aurrekontuak BPGan duen pisua urtero gutxienez % 1 handitu behar da, 2025ean hasita.

## **2- ZERGA-ERREFORMA EGIN, GEHIAGO ORDAIN DEZATEN ERRENTA ALTUEK, KAPITALAK ETA ENPRESA-ETEKINEN GAINKO ZERGA HANDIAGOA IZAN DADIN**

Europako beste egiturazko diferentziala presio fiskala da (BPGaren % 32,9), europar batez besteko maila (BPGaren % 40,2) baino askoz txikiagoa baita; horrek esan nahi du urtean zergatan 7.100 milioi gutxiago biltzen dela. Diferentzial hau murriztu beharra dago; horretarako erreforma fiskala egin behar da, zerga dezente gehiago ordain dezaten kapitalak, errenta altuek eta etekinak dituzten enpresek; halaber, soldatapeko ez diren errentetako iruzur fiskalari aurre egin behar zaio. Horretarako ELAk honako neurriak proposatzen ditu, besteak beste:

- Sozietateen gaineko Zergan enpresek gutxienez kontu-etekinetako % 25 ordaindu behar dute, inolako salbuespenik gabe.
- PFEZ: Kapitalarentzako tasa berezia kendu, tasa bakarra izan dadin; garai bateko % 65,5eko gehienezko tasa marjinala berrezarri, tasa hori aurrerago gehiago handitzeko lehen urrats gisa.
- Ondarearen Zerga: Tasa bikoiztu.
- Iruzur fiskalaren jazarpena- Urtero gutxienez soldatapeko ez diren errenten % 25 ikuskatu.

## **3- GOITIK BEHERAKO ALDAKETA OSAKIDETZAN ZERBITZU SANITARIOA KALITATEZKOA ETA BIDEZKOA IZAN DADIN**

Goian aipatu den moduan aurrekontua handitzeaz gainera, Osakidetzaren kalitatea hobetuko bada honakoa egin behar da:

- Bermatu jende guztiak gehienez 24 orduko epean lehen arreta jasoko duela- Hau lortzeko Osasuneko aurrekontuaren % 25 lehen arretara bideratu behar da eta lantaldea sendotu. Lehen arreta da Osakidetzarako sarbidea; hau hobetuz gero eragina sistema guztiarengan igarriko da, efizientzia hobetuz eta biztanleriaren osasunean berehalako ondorioak izango ditu.
- Itxaron-zerrendak murriztu- Zerrenda hauei buruzko datuak ez dira errealak. Osakidetzak hainbat modutan ezkututzen eta mozorrotzen ditu. Irizpide gardenak eta arrazoizkoak adostu behar dira datu horiek neurtzeko eta konpromisoa hartu behar da benetako itxaron-zerrendak zeharo murrizteko.
- Osasun mentaleko lantaldea handitu, lehen arretako zerbitzua bihur dadin eta sistemaren gainbehera zein pribatizazio/deribazioari atzera eragite aldera.
- Lantaldea egonkortu. Dagoeneko irekita dauden LEPekin aldi baterako enplegu tasak % 40tik gorakoa izaten jarraituko du.
  - Egitura-plantillan aitortu beharrekoak dira plantilla funtzionaleko lanpostu guztiak eta zeregin-metatzeagatiko guztiak.
  - Lanpostu egonkorrak sortu, egiturazko ordezkapen beharrianak osateko.

- Lantaldea egonkortu ohiz kanpoko finkatze-prozesu baten bidez, hiru urtetik gora lanean diharduen oro finkatzeko.
- Langile sanitarioen trebakuntza espezializatua arautzeko eskuduntza galdegin, Osakidetzaren beharren baitako programa egokia ezartze aldera.
- 15 urteko plana landu Osakidetzako belaunaldi-erreleboari aurre egiteko, izango diren beharrezkoen baitan.
- 1992tik hona izan den eta areagotzen ari den egiturazko autokontzertazioa (aparteko orduak) amaitzeko plana egin. Honetarako plantillak handitu behar dira, dagoen arta-eskariari ohiko baliabideekin aurre egin ahal izateko.
- Osasungintza pribatua Osakidetzaz baliatzeko joera geldiarazi:
  - Esklusibotasun osagarria berrezarri, soilik Osakidetzan eta beste inon lan egiten ez duen jendeak jaso dezan.
  - Ordutegiaren kontrol-sistema ezarri, fitxaketa presentzial bidez.
  - Ibilbide bat definitu osasungintza pribatuarekiko itunak ezabatzeko eta Osakidetzak eginkizun horiek zuzenean bete ditzan.
  - Plan bat egin osasungintza pribatuan diharduten langileek Osakidetzan lan egin dezaten.
  - Neurriak ezarri Osakidetzako prestakuntza ez dadin baliatu osasungintza pribatua gizentzeko (dermatologia, kirurgia estetikoa...).
  - Mutualitate patronalek funtzio gehiago bereganatu nahi dituzte. Kontrako prozesuari ekin behar zaio; mutualitateek dituzten soberakinak baliatu behar dira osasungintza publikoa indartzeko eta lan osasuna sistema publikoan txertatzeko.
  - Anbulantzia zerbitzuaren publikazioa.
- Bermatu behar da Osakidetzako barne tresna guztiak euskaraz ere erabiltzeko aukera izan dadin. Osakidetzak osorik euskalduntzeko plana martxan jarri; honakoa lortu behar da haren bidez:
  - Berehalakoan, Osakidetzako edozein langilek erakundearekin euskaraz harremana izateko aukera (zuzendaritzarekin, tresna informatikoak euskaraz...).
  - Bost urteren buruan euskarazko zerbitzu-zirkuitu osoak ezarri.
  - Langileei laguntza eman 15 urteko epean guztiak elebidun izan daitezten eta posible izan dadin edonori Osakidetzako edozein zerbitzu berdintasunez eskaintzea.
- Karrera profesionala aldatu, honako helburuekin: Berdintasuna behar da Osakidetzako eremu guztien artean, genero ikuspuntua aintzatetsi, Osakidetzak eskaini edo bideratu behar du kontutuan izan beharreko prestakuntza, euskaraz lan egiteko gaitasuna balioetsi eta karrera aitortzeko ez dadila beharrezko izan balorazio subjektiborik.
- Osakidetzako langileen baldintzak negoziatu eta hobetu, berdintasunez jokatzeko kategorien artean. Akordio arautzailea 2009tik hona iraungita dago. Neurriak ezarri behar dira bermatzeko langileak kontziliazioa benetan gauzateko moduan izango direla.

#### **4- HEZKUNTZA SISTEMA BERTOKOA, PUBLIKOA, EUSKALDUNA, EZ SEGREGATZAILEA, KALITATEZKOA ETA LAN BALDINTZA EGOKIAK DITUENA**

Hezkuntza politikan aldaketa beharrezkoa da. Batetik, aipatu dugun moduan, aurrekontua asko handitu behar da, aldaketa bideragarria izango bada; bestetik, honako neurriak ere ezarri behar dira:

- Sare publikoko plantillak egonkortu, finkatze prozesu negoziatuen bidez, aldi baterako enplegu tasa gehienez % 8ra mugatzeko (orain % 40tik gorakoa da).
- Jaiotze-tasaren eta matrikulazioaren jaitsiera baliatu hezkuntzaren kalitatea hobetzeko eta kalitatezko enplegu publikoa sortzeko, eremu guztietan ratioak handituz.
- Hezkuntzako lan osasun psikosozialaren inguruko arazoei ekin- Laneko arriskuen prebentzioko sistema indartu eta iragarri diren pribatizazioak ez gauzatu. Arrisku psikosozialen ebaluaketa egin ikastetxe eta haur-eskola guztietan.
- Hezkuntza Lege berri bat egin bertoko sistema publiko, euskaldun, ez segregatzaile eta lan baldintza egokiak dituen baterantz abiatzeko, hain zuzen orain indarrean den legearen eztabaida izan zenean ELAk egin zituen proposamenen baitan.
- UPV/EHU- Finantziazioa handitu, BPGaren % 1eraino gehitu arte. Ordezko irakasleen arazoei konponbidea eman: 41/2008 Dekretua aldatu, soldaten egokitzea egiteko eta lanaldi partzialeko ordezko irakasleen jarduera guztiak aitortu eta ordaintze aldera.

#### **5- ZAINZA SISTEMA PUBLIKOA, UNIBERTSALA, DOAKOA, KALITATEZKOA ETA ERANTZUKIDEA**

Zerbitzu Sozialen Lege bat behar da, sistema publiko, unibertsala, doakoa, kalitatezkoa eta erantzukidea bermatzeko; hau izan zen ELAren aldarria iazko azaroaren 30eako Greba Feminista Orokorrean:

- Legez bermatu mendeko egoeran dagoen jendearen beharrianen estaldura.
- Sistema doakoa izatea, zergekin finantziatua.
- Zerbitzu publikoak hedatu, azpikontrataturik dauden sektoreak publikatu eta zaintza lan profesionalizatuak merkatutik kanpo utzi.
- Ratioen eta arreta orduen hobekuntza nabarmena: 10.000 lanpostu sortu.

#### **6- EUSKARARI BULTZADA EMAN**

Euskararen aldeko politika argia behar da; gure hizkuntza gutxituta dago eta desabantaila handia du. Honi buruz egin beharrekoak:

- Euskararen legea aldatu, estatus juridikoa blindatzen saiatzeko eta bermatzeko gaztelaniaren parean ofiziala izango dela; ekintza positiboa bideratu, egungo diglosia gainditzeko.
- Euskararen ezagutza benetan unibertsalizatu:

#### Gobernu-ekintzarako ELAren proposamena

- Hizkuntz-murgiltzea funts publikoek finantziatutako hezkuntza guztira zabaldu. Euskarari curriculumean zeharkako izaera eman behar zaio (euskararekiko harreman emozionala landu, batik bat euskarazko kulturarekiko...). Harrera egiteko bitarteko egokiak jarri Euskal Herrira iritsi berriak direnen seme-alabek benetan euskara ikasteko aukera izan dezaten.
- Euskara ikastea doakoa izango dela bermatu, eta lanarekin bateragarri (programa batek lanorduetan euskara ikasteko denbora eskaini behar du). Euskara ikasteko aukera lan-eskubide bihurtu behar da.
- Migranteentzako harrera sistema bat sortu zeinak haiek euskararekin harremanetan jarriko dituen; horrela hizkuntza harrera- eta solidaritate-bitartekotzat hartuko dute.
- Euskararen erabilera normalizatzeko dekretua aldatu 15 urteko epearen buruan langile publiko guztiek euskara derrigor jakin dezaten, gaztelaniarekin batera.

## 7- ETXEBIZITZA IZATEKO ESKUBIDEA BERMATU

Etxebizitza bat izateko eskubidea bermatzeko neurriak:

- Etxebizitza Legea aldatu, behar duen jende guztiak alokairu sozialeko bizileku bat izateko eskubidea bermatzeko.
- Legetik kendu behar da erakundeek duten betebeharra laguntza ekonomiko bat emanda saihesteko aukera.
- Tentsio handiko eremutat EAeko lurralde guztia deklaratu.
- Arrazoi ekonomikoak medio ordaindu ezinik dagoen jendea etxegabetzeko aukera galarazi, bizileku alternatiborik ez dagoenean.

## 8- SARRERA BERMATUAK, MEREZI DUEN BIZIMODUA IZATEKO AUKERA EMANGO DUTENAK

Gizarte-prestazioen arloan hainbat murrizketa egin dira azken urteetan. Sistema ez dela nahikoa agerian uzten du datu batek: pobrezia egoeran dagoen jendearen heren bat hartatik kanpo uzten du; gainera, sistema ez da gauza bere eremuan artatzen duen herritar ugari egoera hortatik ateratzeko. Horregatik, honakoak egin behar dira:

- DSBEan eta gainerako gizarte prestazioetan azken urteetan egindako murrizketei berehala atzera eragin.
- Banako DSBEaren zenbatekoa LGSaren % 100 izan dadila ezarri.
- Urtebetera jaitsi DSBEa jasotzeko eskubidea aitortzeko beharrezkoa den erroldatze epea.

## 9- NEURRI ANTIRRAZISTAK

Migratzaileek areago pairatzen dute langabezia, prekaritatea, pobrezia eta desberdintasun soziala. Horregatik, ELAk enplegu- eta gizarte-politiken multzoaren inguruan egiten dituen proposamenak aplikatuz gero (etxebizitza, osasungintza, hezkuntza, pentsioak, zaintza sistema, gizarte-prestazioak, etab.) migratzaileen bizi-

#### Gobernu-ekintzarako ELAren proposamena

eta lan-baldintzak zuzenean hobetuko lirateke. Horretaz gainera, hauek dira gure eskariak:

- Lan Ikuskaritzari bitarteko gehiago eman bereziki langileen esplotazioaren jazarpena egin dezan.
- Gizarte-prestazioak jasotzeko ezartzen diren erroldatzeari edo beste baldintza batzuei lotutako abusuzko eskakizunak kendu; jazarri egin behar dira norbaiti etxebizitza alokatzea ukatzen diona haren ezaugarri fisikoak, ohiturak, azentua, etab. direla eta, baita kontu bat irekitzeko bete ezineko baldintzak eskatzen dituzten finantza-erakundeak ere.
- Adin txikikoen zentroetan arreta egoki eta nahikoa emateko aurrekontuen igoera nabarmena.
- Migratzaileentzako lanbide heziketara askoz ere baliabide gehiago bideratu.

### **10- TRANTSIZIO EKOSOZIALA SUSTATZEKO NEURRIAK**

Krisi ekologikoari aurre egiteko paradigma aldarazi behar da. Egungo testuinguruan honako aldarrak plazaratzen ditu ELAk:

- 2.500 milioi euroekin funts publiko bat sortu ELAk aldeztu duen bidezko trantsizio ekosozialaren logikaren baitako sektore eta enpresen garapenean inbertitzeko.
- Enpresak beren langileen kontrolpean jartzen dituzten eraldaketa prozesuak sustatu. Bereziki, programa bat sortu behar da krisian dauden enpresak, eraldatzen ari diren sektoreak edo deslokalizatu nahi duten enpresak sostengatzeko.
- Garraio publikoetako prezioen merkatzea iraunkor bihurtu.
- Araudia aldatu erakundeek eskaintzen edo finantziatzen dituzten jantoki zerbitzu guztien oinarria tokiko eredu edo agroekologikoa izan dadin.
- Energia berriztagarri dezentralizatua sustatu, laguntza publikoak ezarriz eta informazioa emango duen arreta-bulego publiko bat sortuz.
- AHT ez finantziatu Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuaren bidez.

### **11- EREDU POLIZIALA, GEHIENGO SOZIALEN INTERESEN ESANETARA**

ELAren eredu Ertzaintza demokratikoa da, herritarren eskubideak zainduko dituena eta bere jarduera kontrolpean izango duena. Aitzitik, Eusko Jaurlaritzak ezaugarri horietatik gero eta urrunago dagoen eredu bat bultzatu du. Horregatik, Jaurlaritzak zeharo aldatu behar du hori; besteak beste, honako neurrien bidez:

- Ertzainei giza-eskubide eta oinarrizko askatasunei dagokienez trebakuntza integrala eman behar zaie, hala akademian nola etengabeko prestakuntzaren bidez.
- Ezinbestekoa da Ertzaintzan kontu emateko mekanismo eraginkor eta gardenak taxutzea, aginte-katea eta botere exekutiboa gainbegiratzea ez ezik giza-eskubideak zaintzen dituzten organismo independenteen aldetik ere kontrola gauza dadin, bai instituzionalak (Arartekoa, NBE), bai gizarte zibil antolatukoak.
- 

#### Gobernu-ekintzarako ELAren proposamena

- Ertzaintzako hautaketa prozesuak bermatu behar du ertzainen artean euskal gizartearen aniztasuna islatuko dela; Ertzaintza euskaldundu egin behar da, eta hainbat kultura, hizkuntza, nazio zein sexu-orientaziotako jendea sartu, gure lurraldean dauden nortasun guztiak ordezkatzeko direla ziurtatuz.
- Hurbiltasuneko eredu poliziala hautatu behar da, komunitatean ondo integratua eta prebentzioa lehenesten duena. Eredu honek eskatzen ditu baliabide gehiago, etengabeko trebakuntza, egonkortasuna zerbitzuan eta lidergo molde berrituak. Mekanismoak ezarri behar dira poliziak komunitatearen beharrizan espezifikoak ezagutu ditzan, gizarte zibileko aktoreekiko harreman jarraituaren bidez. Horretarako behar-beharrezkoa da Ertzaintza eta udaltzaingoetarako LEP bateratuen eredia (lan-zorroak) baztertzea.

## 12- EAEN HITZARTU BEHAR DIRA EUSKAL ERAKUNDEETAKO LANGILEEN BALDINTZAK

Zerbitzu publikoen kalitatea, eta honekin batera lan-baldintzak, zeharo okertzen ari dira; honek dakar herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua txarragoa izatea, eta honen jatorrian aurrekontuak eta inbertsio-politika daude. Eusko Jaurlaritzaren eremuan duela hamarkada luze batetik hona lan-hitzarmenek eta eremu publikoko akordio arautzaileek berritu gabe diraute; langileen %49 behin-behinekoak dira; pribatizazioak ez du etenik -honez gero azpikontrataturako 100.000 langile inguru badira-, eta azken hamar urteetan erosahalmenaren % 20 galdu da. Honek langileen osasun fisiko eta emozionalari erasaten dio, eta eragin handiagoa du emakumeengan.

Hori dela eta, hauek dira ELAren eskariak:

- Oztupoak kendu behar dira soldata publikoak eta enplegu publikoko beharrizanak hemen erabakitzeko, mugarik gabe, oinarrizko legez mozorrotutako soldata-mugarik edota erreposizio-tasarik gabe.
- % 10eko soldata igoera, azken urteetan galdutako erosahalmena berreskuratu eta 2024koa bermatzeko.
- Lehenago galdutako erosahalmenari dagokion zorra aitortu eta hau ordaintzeko benetako konpromisoa.
- Pribatizatu dena lehengoratu, langileen subrogazioa bermatuz.
- Ezkutuan dagoen egiturazko enplegua azaleratu eta sortu beharreko lanpostuak adostu.
- Behin-behinekotasun erreala % 8tik behera ekarri, funtzio publiko guztian aldi baterako langileak ohiz kanpoko prozedura baten bidez egonkortuz. Halaber,



langileak hautatzeko sistema berri bat hitzartu, bermatzeko behinbehinekotasuna ez dela berriro areagotuko.

- Sektore publikoko gehiengoak aintzat hartu eta gutxiengoekiko akordioak baztertu.
- Arrisku psikosozialei, lan-kargaren gorakadari edota herritarren artaren burokratizazioari aurre egiteko planak egin.

#### Gobernu-ekintzarako ELAren proposamena

### **13- ENPLEGUKO ETA LAN-SEGURTASUN ETA -OSASUNEO BERTOKO POLITIKAK**

ELAren iritziz ezinbestekoa da Lan Harreman eta Gizarte Babeseko Euskal Esparrua taxutzea, besteak beste honakoa bermatzearen:

- Erabakitzeko ahalmen osoa lan-eskubide, pentsio, enplegu politika (aktibo eta pasibo) eta lan-segurtasun zein -osasunaren eremuetan.
- Aitor dadila gure lurraldean legez gutxieneko soldata finkatzeko eskubidea.
- Soldata arrakala gutxitu- administrazioak azpikontrataturako enpresetan lan-baldintza duinak bermatzeko ELAk proposatu zuen HELaren edukia ontzat ematea.
- 120 ikuskari gehiago jarri lanean. Gogoeta egin Ertzaintzan talde berezi bat sor ote daitekeen lan osasuneko gaiak ikertzeko.
- Osalaneko plantilla handitu.

### **14- MARKO JURIDIKO-POLITIKO BERRIA**

Marko juridiko-politiko berria behar da. Helburu horretara iristeko egin beharrekoak:

- Eusko Jaurlaritzak argi eta zintzo azaldu behar du autogobernuaren higadura zertan den eta bere eskuduntzen alde egin. Herritarrek jakin behar dute Gernikako Estatutua ahulduta dagoela eta Estatuaren leihatila exekutibo huts gisa ari dela jarduten.
- EAERako estatus politiko berri bati buruzko edozein eztabaidatan funtsezkoa da oinarritzko gaiak txertatzea, esate baterako erabakitzeko eskubidea, Lan Harreman eta Gizarte Babeseko Euskal Esparrua, bertoko marko juridikoaren bermeak, aitortza nazionala eta euskararen estatusa.
- Herritarren eta gizarte zibil antolatuaren eskari eta iritziak hasieratik izan behar dira kontutan, eta edozein aldaketa oinarri sozialak legitimatu behar du.

### **15- DEMOKRATIZAZIOA, GARDENTASUNA ETA GIZARTEAREN PARTE HARTZEA**

Aurrerapausoak eman behar dira demokratizazioan, gardentasunean eta gizartearen parte hartzean. ELAk horretarako hainbat neurri proposatzen du:

- Lehendakariak eta Jaurlaritzako sailburu guztiek ELAren zuzeneko harremana izango dutelako konpromisoa. Sindikatua prest dago akordiotara iristeko, eta hauek soilik edukien baitan epaituko dira.
- Egun alderdi eta erakundeetan nagusi den elitismoa gainditu. Erabakitzekeo prozesuetan gizarte zibila sartzea eta aldaketak oinarritik legitimatzea ezinbestekoa da demokrazia indartzeko eta bermatzeko herritarren eskari eta kritikak entzun eta aintzat hartuko direla.
- Konpromisoa hartu protesten kriminalizazioari uko egingo zaiola eta manifestazioei, ekintza kolektiboari eta grebei ez zaiela helduko ordena publikoko arazo gisa.

#### Gobernu-ekintzarako ELAren proposamena

- Sindikatuen presentzia duten parte-hartze instituzionaleko organoen inguruko legedia aldatu, haiek demokratikoak izan daitezen. Honek eskatzen du erabakiak hartzea talde bakoitzeko gehiengoz, sindikatuen ordezkariaren arabera partaidetza eta parte ez hartzea erabaki dutenenganako errespetua (hauen lekua ez dute beste organizazioek hartu behar); organizazio bakoitzaren ordezkari maila zorrotz errespetatu behar da. Organizazioen finantziak ez da lotu behar beren jarrerarekin edo organo jakin batean parte hartzearekin, ez eta sindikatu bati dagozkion funtsak beste baten esku jarri ere.
- Herritarrei orain eta etorkizunean zuzenean eragiten dieten auzien inguruan kontsulta egiteko eskubidea aitortu eta instituzionalizatu. Herritar kontsultak eta ekinbideak tresna guztiz egokiak dira; sustatu eta babestu egin behar dira demokraziaren oinarri gisa. Kontsultak beti eskubideak hedatzeko egin behar dira, ez murrizteko.
- Eusko Jaurlaritzak hitz eman behar du informazio garden, eskuragarri eta ulergarria emango duela garrantzia duten gai guztien inguruan, bere politiken jarraipena egiteko modua izan dadin.